



HERRI INAUTERIAK. HAURRENTZAKO IPUINAK

Bakarne Atxukarro, Izaskun Zubialde, Aitziber Alonso

Hartza, Mari Trapu, momotxorroak, joaldunak, damak, ikazkina... Horiek dira herri inauterietako pertsonaietako batzuk. Baina, nortzuk dira? Zer adierazten dute? Belaunaldiz belaunaldi gure kultura osatzen duten pertsonaia, mito eta kondairen parte dira, mitologiako beste izakien gisan. Historian zehar, gure arbasoek naturan gertatzen diren fenomeno ezberdinak, ingurua eta mundua bera ere mitologian oinarrituz ulertu dituzte. Ezagutza eta istorio horiek ahoz aho heldu dira guganaino eta lan honek ere ondare kultural hori transmititzen jarraitzeko helburua dauka.

HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-84-5**
ORRIALDEAK: **48**
FORMATOA: **250 x 250 mm**
PREZIOA: **19,50 €**

6 urtetik aurrera

- Herri inauteriei buruzko istorioak, urteko garai jakin batean gure mitologia betetzen duten izakien inguruko ipuinak.
- Euskal mitologia haurrei kontatua liburuaren egileek bat egin dute berriz, oraingoan inauteriei hitzak eta irudiak jartzeko.
- Mitologiak eta iruditegiak naturarekin eta bizi zikloekin duten lotura ulertzeko liburu aproposa.

BAKARNE ATXUKARRO ESTOMBA

1974 Irun (Gipuzkoa)

Komunikazio arloan aritua da. Izaskun Zubialde eta Asun Egurzarekin batera, haurrentzako hogeit hamar ipuin liburu bano gehiago argitaratu ditu 2015etik, bai euskaraz bai gaztelaniaz, gero ingelesera eta frantsesera itzuli direnak. Ia liburu horiek guztiak euskal mitologiari buruzkoak dira, baina gaurkotasuneko beste gai batzuk ere jorratzen dituzte.

IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

1975 Irun (Gipuzkoa)

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Lan Harremanetako diploma eskuratu zuen, nahiz eta irakaskuntza eta pedagogiatik jo duen gero, eta arlo horietako hainbat ikasketa egin ditu. Egundun Sunbillako ikastetxeko irakaslea da. Idazketari dagokionez, Bakarne Atxukarro eta Asun Egurzarekin batera, haurrentzako hogeit hamar ipuin liburu bano gehiago argitaratu ditu 2015etik, bai euskaraz bai gaztelaniaz, gero ingelesera eta frantsesera itzuli direnak. Ia liburu horiek guztiak euskal mitologiari buruzkoak dira.

AITZIBER ALONSO PICABEA

1971 Donostia

Arte ederretan lizentziatu zen Bilbon. Patxi Zubizarreta, Yolanda Arrieta eta Pello Añorgaren liburuak ilustratu ditu, beste batzuen artean. Galtzagorri elkarteko irakurketa aretoen eszenografiak egiten ditu, eta elkarte horren Marrazioak tailerra eta ilustratzailearen txokoa koordinatzen du. Harkaitz Canorekin batera, albumen sorkuntzarako Bikoteka ikastaroa gidatzen du. Max saria irabazi zuen 2021ean Demode Produzioak taldearen *Kutsidazu bidea Ixabel* musikalaren parte izateagatik eszenografiaren irudiekin.



**Autoreen
beste
liburu bat:**



+XO!

txalaparta